

Gaitasun honekin urrats berria egin du Bankuak presentziazko ordainketen arloan

Kutxabankek Bizumen bitartez loteria erosteko eta kobratzeko tresna abiarazi du

- **Estatuko Loterien eta Apustuen saltokietan Bizumen bitartez ordainketak egiteko eta sariak jasotzeko aukera ematen du**
- **Kutxabank aitzindaria izan da Bizumen bitartez eginiko presentziazko ordainketak gaitzen, udan ‘Kutxabank Bizum Negozioak’ abian jartzean**

2021ko otsailaren 17an. Kutxabankek eta Bizumek presentziazko ordainketen arloan aukera berri bat abiarazi dute. Gaitasun honekin, aplikazioa erabili ohi duten bezeroek Estatuko Loterien eta Apustuen saltokietan Bizumen bitartez ordainketak egiteko eta sariak jasotzeko aukera izango dute, berehala, segurtasun osoz eta modu erosoan.

Ordainketa burutzea benetan erraza da. Bezeroek beren aplikazioan Bizum zabaldu beharko dute, eta QR kode bat sortu, loterien administrazioak eskaner bidez jaso eta eragiketa osatu ahal izateko. Modu honetan, bezeroek Bizum erabilia loteriaren 11.000 saltokietan ordainketak egin edo sariak jaso ahal izango dituzte. Eragiketa berehala agertuko da bezero bakoitzaren banku-kontuan.

Presentziazko ordainketetan aitzindaria

Kutxabankek Bizum erabiliz presentziazko ordainketak egiteko zenbait aukera gaituta dauka dagoeneko. Joan den udan, finantza Erakundea arlo honetan aitzindaria izan zen, ‘Kutxabank Bizum Negozioak’ abian jarri baitzuen. Tresna honen bitartez, patrikako telefonoarekin saltokietan ordainketak egin daitezke, bai bertan izanik nola urrunetik, arin, segurtasun osoarekin eta modu erosoan.

Beren negozioen ezaugarriengatik, askotan txartelen bidez kobratzeko TPV gailuak ez dituztelako, edo zuzenean Bizum erabili nahi dutelako, profesional autonomoei irtenbide zehatz bat emateko sortu zen ekimen hau.

Ordainketa mugikorren plataformaren sorreran eta Bizumen garapenean oso jarduera aktiboa izan du betidanik Kutxabankek, eta adin guztietako bere bezeroek ere oso harrera ona egin diote. Horregatik, berrikuntzak eta hobekuntzak eskaintzen jarraitzen du.